

ARAZO-EGOERA

Izenburua: Zu Zeu Irakasle!

Arloa / Materia: Gorputz Hezkuntza

Maila: 4. DBH

Testuingurua:

DBHren bukaeran ikasleen autonomia landuta egon behar dela badakigu. Gorputz Hezkuntza ikasgaiaren barruan hau ikusi daiteke talde txikietan lan egiten eta hoietariko talde bakoitzak aurkezpen bat teoriko-praktikoa egiten.



Arazoa:

Kirola ondo planifikatuta egiten badugu onuragarria da, onura fisiko eta psikikoak lortuko ditugulako. Badakigu zelan egiten den norbaitek zuzentzen digunean, baina gai izango dira gure ikasleek (beraien mailara, jakina) aukeratutako kirola azaltzen, antolatzen eta kideentzako garatzen?.

Xedea:

Kirola, Jarduera Fisikoa aukeratzea, ikerketa egitea, ariketak zein jolasak aukeratu eta antolatu, azaldu eta errealitatera eraman.



Helburuak:

- Jarduera Fisikoa, Kirola ikertzea, ezagutzea, ezaguraztea, azaltzea, antolatzea.
- Faseak eta bakoitzean zein motatako lana egin beharra.
- Jardueraren araberako egokitasuna balioestea.
- Eredu ezberdinak praktikatzea eta era kritikoan baloratzea hasierako irizpideen arabera.

Ataza:

Talde bakoitzak aukeratutako gaia planifikatuko du klasean praktikara eramateko.

Jarraibideak:

- Arazo egoera aurkeztu eta lan plana adostu.
- Binaka (planifikazioa eta praktikara eraman) lan egin.
- Informazioa bilatu eta aukeratu, Internet, aldizkariak liburuak eta apunteak erabiliz.
- Talde barruan adostu eta planifikatu gaia baten diseinua, ariketak, jolasak eta ekintzak.
- Talde bakoitzak bere beroketa eta fase guztiak bideratu saio batean. Amaieran denon artean baloratu.
- Prozesua ebaluatu baita ikasitakoaren lorpena ere (Autoebaluazioa eta koebaluazioa).